

# SARRERA

hermes

## XXI. MENDEKO HEZKUNTZA, MENDE BERRIKO EUSKAL GIZARTEARENTZAT

azko udaberrian, Donostian 2010. urteko udazkenean euskarari buruz egin zen gogoeta-saioaren emaitza argitara eman genuen *Hermes* aldizkariaren ale berezi batean. Ale honetan, aurten, Bilbon, urtarrilaren 20an “XXI. mendeko hezkuntza: erronkak eta helburuak” goiburupean Sabino Arana Fundazioak antolatutako jardunaldiaren emaitzak hartzen du leku berezia. Horra hor, Fundazioaren gogoeta-gai bihurturik, bi kontu, euskara eta euskal hezkuntza, herri honen ezaugarriak behinenarekin eta garapenarekin lotura zuzena dutenak.

Etengabe aldatzen ari den gizartean, egoera berrietan arrakastaz murgiltzeko gauza diren pertsonak prestatzeko ez ezik gizartea bera eraldatzen, eguneratzen laguntzeko, berezko ezau-garrietan ardaztutako hezkuntzaren ekarpena erabakigarria da, are gehiago globalizazioa dena berdintzeko joera areagotzen ari den honetan. Gure herria txikia izanik ere, nor badela erakusten segitu nahi baitu, dezakeen guztietan... dezakeen bitartean.

Hezkuntza-prozesuak aurrera egiten du pertsona bakoitzaren ezagupenak eta gaitasunak abiapuntutzat hartuz gauzak egiten, sortzen diren neurrian. Inor ez da lagun hurkoa baino gehiago edo gutxiago, bakoitzak egin duen ibilbidetik, pilatu duen esperientziatik, egin duen gogoetatik eraikitzen baitu ezagutza. Horiek horrela, ezagutza horiek partekatzeko plaza eskaini nahi izan zien Sabino Arana Fundazioak hezkuntzaren inguruko elkarte eta erakundeetan ari diren pertsona eza-gunei.

Horrexetarako, lanean jarri zituen, galdetegi bati erantzuteko eskatuz. Galdetegi honek bi ardatz izan zituen; batetik, “Euskal hezkuntzaren erronkak XXI. mendeko lehen laurdenean”; eta bestetik, “Erronka horiei aurre egiteko helburuak”. Galdetegi horretan jasotakoak izan ziren jardunaldia gidatzen, eztabaida bideratzen lagundu zutenak.

Ale honek eztabaida horrek emandakoa jasotzen du, baina ez da, ostera, urlia edo sendiak esandakoak jasotzeko asmoz osatutako bilera-agiri

ERRAMUN  
OSA

SABINO ARANA FUNDAZIOKO KIDEA ETA  
"XXI. MENDEKO HEZKUNTZA: ERRONKAK ETA  
HELBURUAK" MINTEGIAREN KOORDINATZAILEA

edo antzekoa. Gertatutako iritzi-trukearen sintesia da, ez besterik. Adostasunak laburbiltzen dira, eta, hainbatetan, desadostasunak edo eztabaida are sakonagoa eskatzen duten puntuak ere aurrera-tzen dira, euskal gizartearen beharrei, bihar-etziko gizon-emakumeen hezkuntzari begira dagoenak ezinbestekoa baitu arian-arian egiten duenaz, eta egin beharko lukeenaz, gogoeta egitea. Inguru etengabe aldatzen ari da, guk uste duguna baino bizkorrago, eta litekeena da gaur aterabide egokia izan daitekeena bihar-etzi eragingarri ez gertatzea. Horrexegatik da garrantzi handikoa, hezkuntza bezalako eremu batean, aldioro galderak egitea eta erantzuten saiatzea.

Aldi berean, ale berezi honetan jorratu nahi genuen gaia hezkuntza zela kontuan hartuz, beren-beregi bi elkar-riketa egitea eta argitaratzea interesagarria izan zitekeela pentsatu genuen, mintegian esandakoen osagarri: Jacques Delors eta Sobhi Tawil. Edukiari dagokionez, aldiz, bi-biak elkar-reen osagarri eta gaurkotasun handikoak, gogoeta eragiten dutenak, nahiz eta zenbaitetan guztiz bat ez etorri.

Jacques Delors XXI. Mendeko Hezkuntzarako Nazioarteko Batzordeak Unesco erakundearentzat idatziriko *Hezkuntza: altxor ezkutua* txostenarekin lotua dago. Txosten horrek ikaragarritzko eragina izan zuen mundu osoan, bereziki hezkuntzaren eremuan. Gurean baita ere, besteak beste, gure hezkuntza-curriculum txosten horrek aurreikusitako hezkuntza eredia baitu oinarri. 16 urte igaro dira txosten hori argitaratu zenetik. Orduetik hona gauza ugari jazo dira eta, azken urteetan, krisi ekonomiko latzak kolpatu ditu bazterrak, hezkuntzan ere eraginez.

Ideiak dira gizartea mugiarazten, berritzen laguntzen dutenak. Sabino Arana Fundazioak bidezidor horretan egiten ditu urratsak, uste osoa baitu ez dagoela hori baino harri sendoagorik, iraunkorragorik gure herria indarberritzeko eta biziarazteko.

Sobhi Tawili egindako elkarrizketan, hezkuntza ereduaren habeetako bat, *elkarrekin biziitzen ikastea* hartu nahi izan dugu oinarritzat. Munduan hainbat gizarte egon dira eta daude indarkeria-egoeran murgildurik, geurea ere bai. Egoera hori gainditzeko urratsak ematen ari gara dirudi. Ea halaxe den, gorpuzten den! Denon zorionerako izango baita! Egoera horrek sortu, hainbatetan iltzatu duen samina, ezinikusia, ondorioak gainditzeko, ordea, denbora luzea beharko da. Elkarrekin bizi ahal izateko, ditugun, sortu diren zauriak osatzen joan daitezen makuluak, kultura eta hizkuntza gutxiagotuak bizi-rauteko lanabesak dira hizpide elkarrizketan. Hortik ere bada-torke guretzat zer pentsaturik, zertaz hausnarketa egin, bereziki hezkuntza-sisteman halako gaiak jorratu nahi ditugunean.

Amaitzeko, hizkuntza desberdinak erabili nahi izan ditugu ale honetan jasotako edukiak gizarteratzeko unean. Horrenbestez, hizkuntza bakarrean edo hainbatetan moldatzen direnei edukia eskuratzen ahalegindu gara, hainbat hizkuntza ezagutzen dutenei eduki osagarria eskainiz.

Duela urte bete pasatxo egin nuen aurkezpenean nioen gogoetak, ideiak direla gizartea mugiarazten, berritzen laguntzen dutenak. Sabino Arana Fundazioak bidezidor horretan egiten ditu urratsak, uste osoa baitu ez dagoela hori baino harri sendoagorik, iraunkorragorik gure herria indarberritzeko eta biziarazteko. Hala biz!